

Liburutegia

PILAR IPARRAGIRRE




Oz-eko Aztia
Jasone Turumbay,
Conchi Maño

EREIN
 88 orrialde
 10,50

Oz-eko aztia
umeentzat

Jasone Turumbayk moldatu du 10 eta 12 urte bitarteko haurrentzat L. Frank Baum-en *Oz-eko aztia* nobela. Liburuko marrazkiak berriz, Conchi Mañoek eginak dira. Urte asko dira Jasone Turumbay umeekin antzerki lanetan ari dela, eta dioenez harrigarria da haurrak antzerkia egiteko duten jarrera eta gaitasuna. Ondorioz, egindako lanak bakoitzari dagokion heldutasun mailara egokitzeko beharra aurkitu du. Testuak adin zehatz batzuetako umeekin lantzeko asmoz idazten badira ere, beti saiatu beharko litzateke idazlea aukeraketak egiten, haur bakoitzaren hizkuntza-

ren ezagupenean arreta jarriz, adinari bakarrik kasu egin ordez. Liburu honek antzezlanerako lan tresna baliagarri eta erabilgarria izateko asmoa du. |




Iker-21
Batzuen artean
 EUSKALTZAINDIA
 800 orrialde
 20 euro

Jean Haritschelharri
egindako omenaldia

Belaunaldi eta zeregin desberdinetako kideak dira *Jean Haritschelharri*-i omenaldia liburuaren egileak. Euskaltzaindiako kideen omena eta aipamena bildu nahi izan du Iker bildumako 21. zenbakiak. Agertzen dituen gaien artean, Haritschelharrek gehien maite dituenetako batzuk: euskal literatura, historia, pilota, euskara, euskal klasikoak... Beñat Oyharçabalek bildu du Haritschelharrek idatzitako lan gehienen bibliografia. Hasieran euskaltzain oso izan zen Haritschelhar; gero euskaltzainburorde, eta ondoren euskaltzainburu, duela gutxi arte. Baigorri jaiotako letra gizona, Euskaltzaindiaren historian Akademiaren gobernamentuan denbora gehien iraun duen pertsona da. |

Kultura, identitatea
eta boterea

Euskal nortasuna hizpide da beti Udako Euskal Unibertsitateko ikastaroetan. *Euskal herria ardatz, Kultura, Identitatea, Boterea, Ezagutzua, Sentimendua, Ekimena* liburuan, azken hamar urteotan zientifikoki zer garen adierazteko hiru ikerlarik –Eugenio Arraiza, Eduardo Apodaka eta Joxemanuel Odrizola– egin duten ahalegina bildu dute. Gaizka Aranguren izan da lanaren koordinatzailea. Euskaldunak nor garen, nolakoak garen, zertan dihardugun, zergatik, zergatik oraindik... Euskal senaren esanahian interesa duen ororentzat osatutako lana da hau. Botereaz baina, gutxi hitz egin dute, ez dagoelako gaur egun Euskal Herriko boterearen inguruko ezagutzua zientifikorik. Halere, egileek euskaldunak inoren mendekoak izan ez gaitezen legokigukeen boterea nahi lukete. |




Euskal Herria
ardatz
Batzuen artean
 UDAKO EUSKAL
 UNIBERTSITATEA
 276 orrialde
 22,20 euro

Euskarazko
kazetaritza hizpide

Nafarroako Unibertsitateko Filosofia eta Letren Fakultatean sortutako Euskal Hizkuntza eta Kultura Katedrak bulztatuta egiten dira Euskarazko Kazetaritzaren Jardunaldiak. Eskarmentu handiko euskal kazetariak parte hartu ohi dute. Asier Barandiaran editoreari esker plazaratu den *Euskarazko kazetaritza: gogoetak, esperientziak eta analisiak* liburuan, euskarazko kazetaritzaren hastapenetik gaur artekoak bildu dituzte. Xabier Letona ARGIA-ko zuzendariak, Xabier Alzibarrek, Asier Barandiaranek, Joxemiel Bidadorrek, Javier Díaz Nocik, Julio Iturrik, Odile Kruzetak eta Lourdes Otaegik lagundu dute bide hori osatzen. Ukitzen diren gaien artean, euskal kazetaritzaren sorreran Manezaundik eta Pablo Fermin Irigarai *Larrekok* izan zuten garrantzia. |



Euskarazko
kazetaritza:
gogoetak,
esperientziak
eta analisiak
Batzuen artean
 NAFARROAKO
 UNIBERTSITATEA
 114 orrialde



Biztanleria
magrebtarra
EAEn

Batzuen artean

ARARTEKO
260 orrialde
12,02 euro

Magrebtarrak gurean: egoera eta itxaropenak

Nola pentsatzen dute, zer nolako ametsak dakartzate, zerk ematen die beldurra gurera etortzen diren magrebtarrei? Galdera horiei erantzutera dator Euskal Autonomia Erkidegoko Arartekoa, lurralde horretan finkatutako magrebtarren egoera eta itxaropenak jorratzeko bultzatu duen ikerketan. Juan Luis Fuentes Nogales eta Trinidad L. Vicente Torradok egin dute, 40 gizon eta emakume magrebtar elkarrizketatuz. Pertsona horien migratzeko asmoak jakiten ahal dira horrela; hona iritsita izan zuten harrera; etxebizitza lortzeko aukerak; Islama nola bizi duten; beren harremanak;

beste hizkuntza batzuk ikastea edo ama-hizkuntzari eustea zer den beraiantzat... |

Itzulpen on bati euskarak berak ezartzen dizkion zailtasunak

Itzulpengintzaren aniztasuna du ardatz Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpreteen elkartearen *Senez* aldizkariak. 32. zenbaki honetan azaltzen dituzten gaien artean honakoak daude: *haikuen* itzulpena; itzulpena eta feminismoa; itzulpenerako laguntza informatiko libreak; bertsoaritzak eta itzulpengintza; autoitzulpena; interpreteen pres-takuntza; justizia administrazioiko itzulpen automatikoa; literatur itzulpenari buruzko gogoetak; klasikoak itzultzea; eta errebisioa eta kalitatearen garrantzia. |

Senez 32

Batzuen artean

EIZIE
240 orrialde



JOSE LUIS OTAMENDI

«Poesia denboraren diktadurari jartzen diogun hesia da»

Zer azaldu nahi izan duzu poemotan?

Erlojuen mekanikarekin denbora jendearen neurriara ekartzeko ahalegina adierazi nahi izan dut, nire egunerokotasuna zertan den esplikatu, poesiaz baliatuta.

Zein gai ukitu dituzu?

Liburu honek 2008an bizi den 48 urteko euskaldun baten buruaren ispilu izan nahi du. Eta bizitzea egokitu zaigun aldiaren auzietako batzuk adierazi nahi izan ditut poemotan, nire munduaren bertsio bat eman, gure garaian mugitu eta mugatu gaituzten sentimendu eta gertaeren ardura daukagulakoan bainago. Poesia eta orokorrean sormena ere, ezaxolakeriari, kaosari, ezinari, denboraren diktadurari jartzen diogun hesia da, neurri handi batean. Eguneroko gauza txiki eta arruntek garrantzia dute, dudarik ez —nik liburuan aipatu ditut batzuk: ogia, gosaria, erosketak...—, baina baita egunkariak ixteak, borroka armatuak, amodioak, torturak... horiek ere garrantzizkoak dira hemen bizi den edozeinen eguneroko bizitzan.

Kritika sozialak ere badu lekurik lanean.

Denbora neurtzeko beharra erabaki politikoa ere bada. Badirudi hori gehiegikeria izan daitekeela baina, azken batean, erloju bat konbentzio soziala den heinean, erabaki kolektibo bati erantzuten dio. Aldi berean ezin dugu etsi erlojuen mekanika aldatzen saiatu gabe. Borroka egitea ezinbestekoa dugu, nahiz eta, agian, planteamenduetan eta borroka moduetan, bada, askotan huts egin eta askotan maite ez ditugun ondorioak ekarri horrek. Baina nik uste dut immobilismoa dela azkena poeta batentzat.



egileari galdezka

Jose Luis Otamendiren olerki libururik politikoena

Bizitzea egokitu zaigunari egin dio aurre Jose Luis Otamendik *Erlojuen mekanika* bere

seigarren poema liburuan. *Ez du zabaldu gaurko nahi genuen eguna* esango du poemetako batean, ondoren honakoa argituz: *beste herri batekoa nahi-ko nuke izan/ beste jende batekin lan egin*. Baina unean uneko kontraesanak gaudituta, aurreragoko olerki batean baieztatuko du: *denon artean aberri hau/ behin betikoz abazten dugun arte/ nire herrian bizi nahi-ko nuke/ eguneroko poz-nekeei indar guztiak emanda/ apalago bizi/ gizaki bati dagozkeion neurriko kezkekin*. Duela hamabi urte argitaratu zuen aurreko poema liburua, *Lur bat zure minari*. Giza harremanak gerra paisaiaren bitartez azaldu zituen han. Oraingoan, Otamendiren poetika ondo ezagutzen duen Iñigo Aranbarriren ustez, poesia zibilerako saltoa eman du. Badago bidaia



Erlojuen
mekanika

Jose Luis
Otamendi

SUSA

94 orrialde
11,50 euro

bat liburuan, hasieran sinpleagoa eta bukaeran gatazkara garamatzana. Bidaia zintzoa eta ausarta, Jose Luis Otamendiren poetikan, politikan eta gure gizartean barrena. Politika bizitza baldin bada, elkarbizitza baldin bada eta horien inguruko sentimenduak baldin bada, dudarik gabe Jose Luis Otamendiren olerki libururik politikoena haxe dela uste du Iñigo Aranbarrik. ■